

Rhynchophorus ferrugineus : PALMONDOETAKO "PIKUDO GORRIA".

Kurkulsionidoen familiako Koleoptero zulatzailea da *Rhynchophorus ferrugineus*. Jatorria Asiako hego-ekialdean dauka eta Espainiako espezie exotiko inbaditzaileen katalogoan sartuta dago.

IZURRIAREN EZAUGARRIAK

Heldua: 2 eta 5 cm artekoa da . Gorrixka. Burua luzexka du, moko-formarekin (hortik "pikudo" izendapena).



Arra: Hankarik gabeko larbak dira piriformeak eta kolore horixka, okre. Azken faseko larbek 5 cm izan dezakete.. Buru marroi iluna eta masailezur indartsuak dituzte.



Krisalida: kapulu batean bildutako 4-6 cm-ko egitura zilindrikoa. Palmondoaren zuntzekin eraikitzen du larbak Metamorfosia amaitzean heldua azaleratzen da bertatik.



BIOLOGIA

Intsektuak bere ziklo biologiko osoa garatzen du palmondoan. Emeek ehundaka arrautza jar ditzakete koroko eta inausketa zaurietako ehun samurrean. Ziklo biologiko laburra du (3-4 hilabete) eta ziklo bat baino gehiago izan ditzake urtean

Palmondo berean, garapen-egoera desberdinetan dauden ehundaka intsektu bizi daitezke.

Helduek palmondoa uzten dute deskonposizio maila jakin batera iristen direnean eta elikagai falta dutenean. Halere, joan daitezke beste palmondo batzuetara ere inausketek edo hostoetako zauriek sortutako sustantzia lurrunkorrek erakarrita

Emeak palmondotik ateratzen dira arrautzak ernalduta eta beste palmondo batzuetara iristen dira hegan edo lurretik gora igoaz.

Hilabete hotzenetan izan ezik, helduak ia urte osoan daude aktibo.

KALTEAK ETA SINTOMAK:

Pikudoa palmondoaren barruan bizi eta elikatzen da, eta horrek zaildu egiten du haien presentzia detektatzea, bereziki lehen estadioetan. Pikudoaren sintoma nagusiak dira:

- Haginkadak edo zuloak hosto gazteetan.
- Hosto gazteetan folioloak galtzea.
- Inklinazioa eta goibel itxura.
- Itxura anormala (asimetria).
- Koroaren erdiko hostoak lehortzea eta zimeltzea.
- Deskonposizio usaina.

Larbek galeriak zulatzen dituzte enborrean edo estipean, palmondoa ahulduz eta heriotza eragin dezake. Espezie kaltetuena Kanarietako palmondoa da, *Phoenix canariensis*, baina beste palmondo batzuk ere erasotzen ditu.



Andaluziako juntako Nekazaritza saileko argazkiak



Emilio cayuela c.

TRATAMENDUAK ETA HARTU BEHARREKO NEURRIAK:

Izurriaren kontra tratamenduak eman ahal izateko EOEO (produktu fitosanitarioen ekoizle eta erabiltzaile erregistroa) erregistroan, tratamendu enpresa atalean, erregistratutako enpresa baten bitartez egin beharko da. Udaleko lorezaintza zerbitzuko langileen bitartez egin behar bada, langileak EOEO erregistroan egon beharko du ere (aplikatzaile atalean inskribituta) eta aholkularitza teknikoarekin egitea gomendatzen da.

Baimendutako produktu fitosanitarioak erabilia, soilik, egin daiteke tratamendua. Tratamenduak eman behar dira palmondoen goiko aldean, hazkunde apikala ematen den lekuan. Baimendutako produktu horietako batzuk endoterapia bidez, zurtoinean aplikatuta, eman daitezke. Kontuan hartu behar da tratamendu horiek bete beharko dutela 1311/2012 Errege Dekretuan, XI. Kapituluaren ezarritakoa; non ezartzen diren baldintzak nekazaritzakoak ez diren esparruetan tratamendu fitosanitarioak aplikatzeko.

Hildako palmondoak erauzi behar dira eta, izurria ez barreiatzeko, garrantzitsua da kaltetutako palmondoen landare-materialik ez uztea kontrolik gabeko lekuetan. Behar bezala suntsitu behar da, intsektua inguruko palmondoetara joan ez dadin.

Kaltetutako palmondoen landare-materiala suntsitzeko metodarik eraginkorrenak birrintze fina, errausketa, edo lurperatzea, gutxienez metro 1eko sakoneran, dira. Konpostajea ez da eraginkorra pikudoa suntsitzeko.

Eragindako hondakinen tratamendua baimendutako hondakinen kudeatzaile baten bitartez egin beharko da. Bertara materiala eramatean, izurria ez barreiatzeko neurriak hartu beharko dira eta palmondoa erauzteko eta inautseko erabilitako tresna guztiak desinfektatu beharko dira.